

## **ETXEBIZITZA BABESTU GISA ERAIKITAKO ETXEBIZITZETAN ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZAK EZARTZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, etxebizitza babestu gisa eraikitako etxebizitzetan erabilera turistikoko etxebizitzak jartzeari buruz, Udalbatzan azter dadin. Kontrol-mozio hau 2024ko uztailaren 15ean Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

### **JUSTIFICACIÓN**

Udalaren Erabilera Turistikoko Etxebizitzen Erroldan, badira bi etxebizitza, gutxienez, azalera-eskubidean eman zirenak eta Administrazio Publikoak, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak, babes publikoko etxebizitza gisa eraikitakoak.

Zehazki, etxebizitza horietako bat Gaztela kaleko 12. zenbakiko eskuineko solairuarte edo etxabea dago, eta bestea Gaztela kaleko 10. zenbakiko ezkerreko solairuarte edo etxabea. Biek dituzte VT plakak kanpoaldean jarrita.

Gertaera hori harrigarria da, batez ere kontuan hartzen badugu etxebizitza horiek, azalera-eskubidean emandakoak izaki —hau da, hasiera batean Administrazioa zen lurzoruaen titularra—, diru publikoarekin eraiki zirela, etxebizitza-premiari erantzuteko, eta, eraikitzeke unean behintzat, babes publikoko etxebizitzen araubidera atxikita zeudela.

Beraz, etxebizitza-premiari erantzuteko eraikitako etxebizitza batzuk erabilera turistikorako erabiltzen ari dira, hau da, interes espekulatibo hutsa dute.

Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako ordezkariari horri buruzko interpelazioa egin genion, eta hark erantzun zigun etxebizitza-bloke horren kalifikazio-indarraldia jadanik amaitu zela. Nolanahi ere, kontua da etxebizitza horiek etxebizitza-premiari erantzuteko eraiki zituela Eusko Jaurlaritzak, eta hasiera batean haren jabetzakoa dela lurzorua oraindik, etxebizitzak azalera-eskubidean eman baitziren, adjudikaziodunek Eusko Jaurlaritzari lurzorua erosi ez bazioten behintzat. Horrek etxebizitzen kalifikazioa iraunkorra izatea dakar.

Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako ordezkariak jakinarazi zigun ez etxabea ez solairuartea ez zirela etxebizitza gisa ageri Eusko Jaurlaritzan. Hori horrela, eraikin horiek etxebizitza gisa eraiki ez baziren, araudiak ez du baimentzen lokal batean erabilera turistikoko etxebizitza bat jartzea.

Horretarako, ezinbestean, erabilera aldatzeko lizentzia eskatu behar zaio Udalari, eta hark onartu egin behar du hori. Horri buruzko informaziorik ez zen eman.

Hori guztia dela eta, hau da nire **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio jarraibideak eman diezazkiela udal-zerbitzu teknikoei, egiaztatzeko ea legezkoa den Eusko Jaurlaritzak etxebizitza-premiari erantzuteko eraikitako eraikin batzuetan erabilera turistikoko bi etxebizitza gutxienez jartzea, zehazki, Gaztela kaleko 10. eta 12. zenbakietan.
- 2.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen dio jar dadila harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin, egiaztatzeko ez dela erabilera turistikoko etxebizitzarik edo logelarik jartzen hirian etxebizitza-premiari erantzuteko eraiki ziren etxebizitza-blokeetan.

Donostia, 2024ko uztailaren 18a

**Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré**  
EH Bildu udal-taldeko zinegotzia